

Arabian eta Bizkaian industria lurralde horietako hiriburuetan bildu zen

Gipuzkoako industria sakabanatuago egon zen eta lurralde honetako banaketa orekatuagoa izan zen

Eustaten datuen arabera, Arabako eta Bizkaiko industriek ezaugarri bera izan zuten: hiriburuaren inguruan bildu zen industria gehien. Araban, 2008. urtean, Arabako Lautadako industria lurraldeko balio erantsi osoaren %60,8 izan zen. Bizkaian industria gehiago pilatu zen, Bilbo Handiko eskualdean batez ere, hemen bildu baitzen lurraldeko balio erantsi osoaren %62,6. Durangaldeko eskualdea gehitzean balio hori handiagoa izan zen: biak batera Bizkai osoan %82,2 izan ziren. Gauza bera gertatu zen Araban. Arabako Lautadako industrian sortu zen balio erantsiari Kantauri Arabarrean sortutakoa gehituz gero, bi eskualdeen artean lurraldeko industriaren %77,9 izan zuten.

Baina Gipuzkoan, industriaren banaketa bestelakoa izan zen. Donostia-San Sebastián eskualdean lurraldeko balio erantsi osoaren %30,5 izan zen, baina Goierri eta Deba Garaian Gipuzkoako industriaren %17,6 eta %17,1, hurrenez hurren.

Eskualde horien garrantzia kontuan hartuta, aurreko urtearen aldean balio erantsiaren hazkunde tasek hiriburuaren bilakaeraren eragina izan zuten, batez ere Araban eta Bizkaian.

Arabian, Arabako Lautadaren hazkundera %2,9 izan zen, lurralde osoak izan zuen bera. Lurraldeak urte batetik bestera izan zuen hazkunderik handiena Arabako Mendialdean eman zen: eskualde honetako aldakuntza positiboa izan zen, %22,6. Baina hazkunde horrek eragin oso txikia izan zuen lurralde osoan. Arabako Haranak eta Kantauri Arabarrak izan zuten, ondoren, hazkunderik handiena: %7,7 eta %4,4, hurrenez hurren. Lurraldeko industriaren portaerarik txarrena Arabako Errioxan eman zen; hemen, balio erantsiak %1 egin zuen behera.

Bizkaian, industriaren balio erantsiaren batez besteko hazkundera %3,6 izan zen. Plentzia-Mungia (%11,9), Enkarterri (%7,5), Markina-Ondarroa (%5,3) eta Bilbo Handia (%4) eskualdeek hazkunde hori gainditu zuten. Beste aldean, balio erantsian hazkunde tasa txikienak izan zituzten Arratia-Nerbioi (-%4,4) eta Durangaldea eskualdeek, nahiz eta azken honek %1,7ko hazkunde positiboa izan.

Gipuzkoako batez besteko hazkundera izan zen hiru lurraldeetatik eskasena: %0,2ko tasa. Bilakaera onenak ondoko eskualdeetan eman ziren: Tolosaldea (%8,7ko hazkundera), Bidasoa Beherea (%6,3) eta Donostia-San Sebastián (%5,5). 2008. urtean portaera txarrenak izan zituzten eskualdeak, aldiz, Deba Garaia (%9,2ko beherapena) eta Goierri (balio erantsiak %4,2 egin zuen behera) izan ziren.

Euskal AEko industriako enplegua 250.292 pertsonakoa izan zen 2008. urtean. Industriako enplegu horren %47,0 Arabako Lautadan, Bilbo Handian eta Donostialdean eman zen. Bilbo Handian eta Donostialdean enplegu okupatuak %2,0 eta %1,8 egin zuen behera, hurrenez hurren. Soilik Arabako Lautadan gehitu zen, pixka bat, okupazio maila (%0,3).

2008. urtean, eskualdeko joera orokorra enplegu kopuruaren galera izan zen, aurreko urtearen aldean betiere. Eskualde gutxi aldendu zen joera orokor horretatik. Araban, Arabako Haranak (enpleguaren %5eko hazkundearekin) eta arestian aipatutako Arabako Lautadak izan zuten bestelako joera. Bizkaian, Enkarterrik bakarrik mantendu zuen enplegu maila (%0,2), baina kontuan izan behar da eskualde horrek izan zuela Bizkaian industriako enplegu gutxien. Gipuzkoan, soilik Goierri eta Tolosaldean igo zen enplegu kopurua aurreko urtearen aldean: %1,0 eta %0,4, hurrenez hurren.

Pertsonal okupatua eta balio erantsia industriako faktore-kostuaren eta eskualdearen arabera. 2008. Mila eurotan

	Pertsonal okupatua (kopurua)			Balio erantsi gordina, faktore-kostuan		
	2007	2008	Δ 08 / 07	2007	2008	Δ 08 / 07
Euskal AE	255.294	250.292	-2,0	17.615.267	17.997.138	2,2
Araba	49.707	49.453	-0,5	3.594.157	3.696.723	2,9
Arabako Ibarrek/Valles Alaveses	1.980	2.079	5,0	142.378	153.354	7,7
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	31.708	31.792	0,3	2.184.633	2.248.621	2,9
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	421	418	-0,7	19.077	23.383	22,6
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	4.349	4.100	-5,7	382.435	378.430	-1,0
Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea	3.658	3.559	-2,7	259.903	260.487	0,2
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	7.591	7.505	-1,1	605.730	632.449	4,4
Bizkaia	106.378	103.989	-2,2	7.281.370	7.546.849	3,6
Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión	5.239	4.849	-7,4	311.577	297.816	-4,4
Bilbo Handia/Gran Bilbao	61.032	59.791	-2,0	4.538.472	4.721.396	4,0
Durangaldea/Duranguésado	23.216	22.953	-1,1	1.454.613	1.479.129	1,7
Enkartzioak/Encartaciones	2.048	2.052	0,2	140.240	150.699	7,5
Gernika-Bermeo	4.517	4.305	-4,7	243.563	250.589	2,9
Markina-Ondarroa	4.257	4.016	-5,7	248.099	261.217	5,3
Plentzia-Mungia	6.069	6.023	-0,8	344.806	386.004	11,9
Gipuzkoa	99.209	96.850	-2,4	6.739.740	6.753.566	0,2
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	5.906	5.740	-2,8	304.669	324.012	6,3
Deba Beherea/Bajo Deba	10.888	10.407	-4,4	587.361	591.800	0,8
Deba Garaia/Alto Deba	19.553	18.643	-4,7	1.273.822	1.156.899	-9,2
Donostialdea/Donostia-San Sebastián	26.511	26.026	-1,8	1.951.588	2.059.400	5,5
Goierri	14.553	14.705	1,0	1.238.304	1.186.869	-4,2
Tolosaldea/Tolosa	8.660	8.697	0,4	550.062	597.671	8,7
Urola-Kostaldea/Urola Costa	13.138	12.632	-3,9	833.934	836.915	0,4

Iturria: Eustat – Industria Estatistika

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula Lazkano

Tel.: +34-945-01 75 09 Faxe: +34-945-01 75 01

[Industria Estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Industria Estatistikari buruzko datu-bankua](#)